

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)  
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	2022IPLE0004
ATALA.	IDAZKARITZA
GAIA	ALBIZTURKO UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

## 2022-05-25eko UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

Albizturren, 2022ko maiatzaren 25ean, arratsaldeko 18:30tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ez-ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

### BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Larraitz Ezeiza Artola
- Mikel Galarza Arrue

### BERTARATU EZ DIRENAK:

- Aitziber Orbegozo Arrospide
- Unai Dorronsoro Olarra
- Aingeru Galarraga Barandiaran

### Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

### AZTERGAIK


1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. 2021EKO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA
4. TOLOSALDEA GARATZEN BALIABIDE PROPIO IZENDATZEA
5. AIZKORRI TXIKIKO BIDEAN DAUDEN LANGEN INGURUKO ERABAKIA
6. UDALERRI TXIKIETAN KIROL PROGRAMAK EZARTZEKO DIRULAGUNTZA
7. MIKEL PRIETOREN HITZALDIA
8. GALDERA ERREGUAK

### 1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2022-04-05eko akta aho batez onartu da.

### 2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2022ko 23 eta 39 bitarteko dekretuen berri eman da.



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)  
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

### **3. 2021EKO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA**

Alkateak 2022ko 33/2022 likidazio dekretuaren berri eman du.

2021eko emaitza 132.825,80 €-koa izan da.

2021eko diruzaintzako gerakin gordina 428.395,58 €-koa da eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 357.775,55 €-koa.

Albizturko udalaren zorpetze maila %5,52koa da.

### **4. TOLOSALDEA GARATZEN BALIABIDE PROPIO IZENDATZEA**


Tolosaldea Garatzen S.A. Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil udalerrien Eskualdeko Garapenerako Elkarte da. 1994. urtean sortu zen eskualdearen garapen sozio-ekonomikoa sustatzeko eta programa desberdinetan lankidetzan dihardu garapen ekonomiko eta sozialarekin zerikusia duten erakundeekin, hala nola Eusko Jaurilaritzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuekin (SPRI) eta SPRILUR bere filialarekin, LANBIDEREkin, Estatuko Ministerio desberdinekin eta Europako Gizarte Funtsarekin.

Tolosaldea Garatzen S.A. Eskualdearen Garapenerako Elkarte sozietate anonimoa da, kapital publikoa du eta ez du irabazi-asmorik. Administrazio Kontseiluan eta Batzar Orokorrean, Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo ordezkari politikoak daude.

Tolosaldea Garatzen S.A.k txostena aurkeztu die hogeitazortzi udalei zera esanez, Sektore Publikoa arautzen duen 9/2017 Lege berriak areagotu egin dituela aurreko legetik ere zetorren "Baliabide propioei" eskatzen zaizkien betebeharrak. Zentzu horretan adierazten du Tolosaldea Garatzen S.A.aren estatutuetan ez zela agertzen izaera hori eta, Baliabide propio izateko baldintzak aztertu ondoren hauek betetzen direla. Beraz, udalek Tolosaldea Garatzen S.A.aren esku zenbait lan eta egitasmo uzten jarraitzeko, kontratazio esparrutik aldenduaz, Baliabide propio izendatu eta estatutuetan horrela jaso beharko dela azpimarratzen da.

Aurkezturiko txostenean, Baliabide propioari legez eskatzen zaizkion baldintzak aztertzen dira:

- Giza baliabideak eta bitarteko materialak izatea.



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)  
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

- Bere jardunaren % 80a sortzaile diren hogeitazortzi udalentsako egindako lanak izatea.
- Erakundearen gaineko kontrola partaide diren botere adjudikatzailerik izatea, kasu honetan, 28 udalek, eta udalen ordezkari bat erakundearen erabaki organoetan egotea.
- Udalek bultzaturiko lizitazioetan ez duela parte hartuko baldintzatzen da.
- Udalen mandatuen araubide juridikoa zehaztea.
- Esan den bezala, erakundearen Estatutuetan jasotzea.

Baldintzak bete izanaren agiriak aurkeztu ditu Tolosaldea Garatzen S.A.k. Horien artean 2019, 2020 eta 2021eko ekitaldiei buruzko azterketa ekonomikoan argi agertzen da, 9/2017 Sektorre Publikoaren Kontratazioa arautzen duen Legearen 32.4 b) artikuluan eskaturikoa, hau da, Tolosaldea Garatzen S.A.ren jardunaren % 80 baino gehiago 28 udalek bere esku utzitako egitasmoen egikaritzan ematen dela. Bestalde, espedientean ere aurkitzen da Tolosaldea Garatzen S.A.k burututako txostena non, besteak beste, 28 udalek egin ahal dizkieten enkarguak aurrera eramateko eskura dituen giza baliabideak eta bitarteko materialak zehazten dituen.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

**Lehenena.-** Sektorre Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 9/2017 Legearen 32. Artikuluan ezarritako baldintzak betetze aldera, Tolosaldea Garatzen S.A. Albizturko Udalaren Baliabide propio izendatzea, izendapen erabakiarekin bat datozen eskualdeko beste udalekin batera.

**Bigarrenena.-** Albizturko Udalak egingo dizkion mandatuen araubidea erakundearen xede diren jardueretara mugatuko da.


**Hirugarrenena.-** Izendapen hau, gainerako udalek egingo dutenarekin batera, Tolosaldea Garatzen S.A.ren estatutuetan jaso dadin onartzea. Estatutuak honako edukia jaso beharko dute:

A) Baliabide propio izaera eskualdeko zein udaletan ematen den.

B) Mandatuen araubide juridikoa.

C) Erakundeak ezin izango duela udalaren lizitazio publikoetan parte hartu, baldin eta ez bada hutsak deklaritzen direnean.

D) Gainerako baldintzak: 28 udalen ordezkariak aginte-organoen egongo dela, bere jardunaren % 80 udaletatik jasotako mandatuen izango direla eta giza-baliabide propioak eta bitarteko materialak izan beharko dituela.



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)  
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

**Laugarrena.-** Izendapen hau kontratazio-profilean argitaratuko da.

**Bostgarrena.-** Erabaki honen berri ematea eskualdeko gainerako udalei, Tolosaldea Garatzen, S.A.ri eta udaleko sail eta azpisailei.

## **5. AIZKORRI TXIKIKO BIDEAN DAUDEN LANGEN INGURUKO ERABAKIA**

Albizturko Udalak “Azarola Goikoara doan errepideari buruzko ikerketa” egin du 2020IPOL0010 espedientearen bidez, eta garbi geratu da errepidea pribatua den arren, jabeek herritarrei bertatik pasatzen utzi behar dietela etenik gabe eta beti.

Langak oztopo dira horretarako, eta Azarola Goikoako langaz gain, errepide hortan langak daudenez Alkorta, Ibarzabal eta Atxisaetarako bidean, ezinbestekoa da hauek ere kentzea herritarrek pasatzeko duten eskubidea bermatzeko.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

**Lehena.-** Aizkorri Txikiko bidean dauden langak kentzeko hilabeteko epea ematea bertako lurjabeek.

**Bigarrena.-** Beraien interesak defendatzeko beharrezko ikusten dituzten alegazio eta dokumentuak aurkezteko 15 egun naturaleko epea ematea.

## **6. UDALERRI TXIKIETAN KIROL PROGRAMAK EZARTZEKO DIRULAGUNTZA**

2022ko apirilak 8ko GAOn Kirol arloko dirulaguntzen iragarkia argitaratu zen.


Alde batetik, Albizturko Udalak eskaintzen dituen kirol jardueretarako dirulaguntza lortzeko aukera dago, eta bestetik, Gipuzkoako Aldundia eta Albizturko Udalaren artean, herrian ez dauden kirol ekipamenduak beste herrietan erabiltzeagatik herritarrek egindako ordainketak diruz laguntzeko aukera dago.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

**Lehena.-** Kirol arloko dirulaguntza eskatzea.

**Bigarrena.-** Albizturko herritarrei erabakiaren berri eman eta dirulaguntza lortzeko jarraitu beharreko pausoak azaltzea.

## **7. MIKEL PRIETOREN HITZALDIA**



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)  
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

Mikel Prietok hitzaldia emango du uztailak 1ean, ostiralean, ilunabarreko 19tan, 1552 - 1900. urte arteko etxeei buruz. Noiz egin ziren edo noiz dagoen beraien lehenengo obra aipamena (nahiz eta lehenagotik eraikita egon).

Buzoneoa egingo da herritarren artean ekimenaren berri emateko.

## **8. 2023KO JAI EGUN LOKALA**

Osoko Bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

**Lehena.-** 2023rako Albizturko langileentzako jai egun lokal bezala abuztuaren 16a ezartzea.

**Bigarrena.-** Eusko Jularitzari honen berri ematea.

## **9. GALDERA ERREGUAK**

- **Landa bideen dirulaguntza:** Albizturko Udalak 35.000 €ko dirulaguntza lortu du Aizkorri Handiko bidea konpontzeko 2022ko landa bideen dirulaguntzan.

- **Etarte eta Aitzaldeko lurjabeekin bilera:** Urte asko igaro dira Albizturko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra onartu zenetik, eta bertan aurrikusitako Etarte eta Aitzaldeko eremuetan etxe berriak egiteko mugimendurik ez dagoenez, bilera egingo da lurjabeekin gaia aztertu eta Udalaren asmoak azaltzeko.

- **Kotxeak ondo aparkatzeko eta egur pilak kentzeko bandoa:** Azken aldian geroz eta gehiago dira kotxeak geizki aparkatzen dituzten eta eremu publikoetan egur pilak egiten dituzten herritarrak. Lehenengo abisu moduan bando bat zabalduko da herritarren artean eta hilabeteko epea emango zaie egoera zuzentzeko.

## **KONTUEN BATZORDE BEREZIA**

### **1.- 2021eko Kontu Orokorraren txostenaren argitalpena onartzea.**

Kontuen Batzordeak aho batez honakoa onartu du:

**Lehena.-** 2021eko Kontu Orokorraren txostena jende aurrean jartzea eta GAOon horren berri ematea.



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)  
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

Osoko bilkura, 19:30tan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoera geradadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2022ko maiatzaren 26an